

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2012ko urriaren 19a. IX. urtea. 2.419. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Astelehenean hasiko da Leitzako Mikologiaaldia

Bosgarren urtez antolatu du ekimena Alke elkarteak; urriak 28 izango da egun nagusia ◯7

Tolosako Ugane eta Ibarrako Azkue auzoetan, jaia nagusi

Ibarran lehen aldiz ospatuko dute festa eguna; Uganen txirrindulariekin hasiko dute jaia ◯5

Abarlotzen emanaldiarekin hasiko dute Orexan, kultur hamabostaldia

Bihar izango da abeslariaren emanaldia; azaroaren 3a arte egongo dira ekitaldiak ◯6

Xabier Amuriza: «Xalbador hil zenetik, urtez urte, handiagoa da»

Xalbador ardatz duen bertso afaria izango da, gaur, Tolosan ◯4



→ **Hauteskundeen atarian.** Maria Eugenia Arrizabalaga (EAJ) eta Marian Beitialarrangoitia (EH Bildu) aritu ziren, Tolosako udaletxeko batzar aretoan, herenegun iluntzean. Tolosaldeko lau euskal komunikabideek antolatutako buruz burukoan eragileek eta herritarrek parte hartzeko aukera izan zuten, eta aretoa txiki geratu zen. ◯2

Ireki atea Zuntzari

15Mb-ko DUOa

16'9 €/hil

+ Finkoetarako deiak, 24 orduz, unebetuz

Alta (p0-e) eta instalazioa **DOAN**
 Helmen handiagoko Wifi N Kable-modema, abiadurik handienarekin. **DOAN**
 Mugikorra gurekin baduzu, Internet zure mugikorrean **DOAN** eta **BETIHO**

Orain, mugikorretarako deiak barne

logika line

943 31 86 11

San Francisco, 19 Tolosa

Barrutako zuzendaria

Somentei hain antzekoak izan daitezke, baina ez dira. 15 Mb/s-ko DUOa 15 Mb/s-ko DUOa baino gehiago erabiltzeko ez da egokia. 15 Mb/s-ko DUOa 15 Mb/s-ko DUOa baino gehiago erabiltzeko ez da egokia. 15 Mb/s-ko DUOa 15 Mb/s-ko DUOa baino gehiago erabiltzeko ez da egokia.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak →

Ikusmin handia piztu du EH Bildu eta EAJren arteko buruz burukoak

Eskualdeko gizarte eragileek mahaiaren inguruan parte hartzeko aukera izan dute, ikusleekin batera

Asier Imaz Tolosa

Tolosako udaletxeko aretoa txiki gelditu zen herenegun, EH Bilduren eta EAJren arteko buruz burukoan. 28 Kanala, Galtzaundi, Txolarre Irratia eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak antolatu zuten mahai ingurua, eta Marian Beitialarrangoitia (EH Bildu) eta Maria Eugenia Arrizabalaga (EAJ) aritu ziren hizketan herritarren aurrean.

Eskualdeko gizarte eragileak ere gonbidaturik zeuden buruz burukora, eta ikusleekin batera hitza hartu zuten.

Mahai ingurua lau ataletan zatitu zuten Jon Miranda moderatzaileak: Ekonomia, normalizazio politikoa, gizartea eta hizkuntza. Ordubete eta 30 minutuko proposamen eta eztabaida jarria hasi zen orduan. Euskararen inguruan ere hitz egin zuten legebiltzarrerako bi hautagaiak.

Euskal Herrian Euskarazeko kideak hitz egin zuen lehenik, duela 30 urte onartu zen Euskararen legearen balantze ezkorra eginaz, «euskaldunon hizkuntza eskubideen bermea ez duelako lortu». Horri erremedioa bilatzeko, lege berri baten beharra aldarrikatu zuen EHEko kideak.

Beitialarrangoitiak ildo bereetik jarraitu zuen: «Pausoak eman dira, baina ez nahikoak, eta azken datuak hor daude. Hizkuntza bat galtzeko arriskuan dagoela esaten da, erabilera %33koa denean. Maila horretara, juxtu-juxtu, Gi-

puzkoa iristen da. Gainerako herrialdeak hortik dezentze beharago daude». Euskarak estatus juridikoa behar duela aldarrikatu zuen EH Bilduko hautagaiak, «gaztelearekin berdintasunean ez dagoelako. Nabarmena da gauzak egin egin direla, baina sekulako bidea daukagu aurretik, euskara galzorian egon ez dadin».

Azken puntu honekin ados agertu zen Arrizabalaga: «Makina bat lan daukagu aurretik, euskara dagokion lekuan jarri bitartean». Euskararen legearen balorazio negatiboarekin ez zen ados agertu, ordea, balorazio positiboarekin bai EAJk: «Erkidegoan, azken 30 urte hauetan, 300.000 euskal hiztun gehiago daude. Egia da erabilera ez dela neurri berdinean hazi, eta makina bat lan dugula aurretik. Gizpukoa da lurralde euskaldunena, eta beste bi lurraldeetan, 16 urtetik berakoen artean elebidunen maila asko igo da». Hauei, euren ingurunea kontuan hartuta, euskaraz hitz egitea zaila egiten zaiela onartu zuen EAJren hautagaiak, horregatik, neurri eraginkorrek hartzearen alde agertu zuen, beti ere, inposaketaren aurka zeudela agertuaz: «Inposaketak jendea haserretu eta kontra jartzen du, eta euskarak ez du behar aurkako jarrera gehiago, alderantziz, hementengoa herritar garen neurrian, gehien atxikimendua behar



Maria Eugenia Arrizabalaga
EAJ

Genero ikuspegia

«Emakumeek politikan presentzia eduki behar dugu; ez da erraza izan parekidetasun hori lortzea, eta beraz, hori ahalbidertzen duten neurriak hartzea, aproposa iruditzen zait».

Ekonomia

«Espainiarekin alderatuz, hemen 35 urtetan gauzak beste modu batetara egin dira, eta egoera ekonomikoa hobea da. Krisitik irteteko lana eta lana egin behar da, eta elkar hartu, benetan akordio sendoak eta zabalak lortzeko. Eragile guztiek inplikatu behar dute, eta gure petrolioaren enpresa eta langileen munduari lagundu, arazoei erantzuna emanaz, erakundeetatik, eta nazioarteko merkatuan saltzeko bideak eskainiz». «Lelo asko eta funts gutxi entzuten dizkizut. Sistema kapitalistak akatsak dituela, noski; sistema neoliberalak ez duela gure moduko pertsonen eskubideen bermea eskaintzen, ikusi da horrela dela; baina, zein da alternatiba? Zer da gaur egun dagoen ereduaren suntsitzea eta eredu berri baten bila joatea, ez joatea, baizik eta aurkitzea. Azpiegitura erraldoien esku utzi dela hementengoa hazkundea? Ez dakit nondik atera duzun hori. Azpiegiturak dira herri bat etorkizunerako egokitzen duten elementuak».



Marian Beitialarrangoitia
EH Bildu

Genero ikuspegia

«Emakumeoi eskubide asko falta zaizkigu oraindik lortzeko; ez dut uste aukera berdintasunik dugunik. Politikan parekidetasuna eta berdintasuna bilatu behar baldin badira, emakumeok legebiltzarrean egoteak lagunduko du horretan, sentzibiltate gehiago erakutsiko dugula, edo beharko genukeelako, zehar lerro horiekiko».

Ekonomia

«Espainiako ekonomia okerrera azkarrago joan da, baina egia da sistemak hemen ere arazoak dituela. Azken urteetan, sistema kapitalista nolabait ere lagundu egin da hemendik, eta politika bide horretatik joan da. Ehun ekonomikoak lagundu baino, azpiegitura erraldoien esku jarri da herri hau, horrela aurrera aterako zela pentsatuz, baina ikusi da hori ez dela bidea. Azken urteetan diru bilketak behera egiten zuela ikusi da, eta zerga politikan ez da inolako apusturik egin. Are gehiago, sistema berak zituen arazoak konpontzeko, langileen lan baldintzak eta gizon emakumeon eskubide sozialak bidean geratzen joan dira, beste interes horiei erantzuteko. Gure ustez errotik aldatu behar dugu sistema bera, eta kapitalismoaz ari naiz, izan ere, behingoz pertsonak egon behar dute sistemaren erdigunean».



'tolosaldea.hitza.info' webgunean, emaitzak

Legebiltzarreko hauteskundeak urriaren 21ean, etzi, izango dira. Eskualdeko emaitzak, eta egunaren gora beherak tolosaldea.hitza.info webgunean jarraitu ahal izango dira.

↓ **Iragarki laburrak**

LAN ESKAINTZAK

Gidariak. B gida baimenetik hasita, dokumentazio publikoa banatzeko langile bila gabiltza. Interesatuak, deitu 654 051778 telefono zenbakira.

Mantenuerako pertsonala.

Obra publiko nahiz zerbitzu orokorretarako langile bila gabiltza. Interesa duen edonork 654 051 778 telefono zenbakira deitu beharko du informazio gehiago eskuratzeko.

Irudia ◉ **Bidegoian**



EH BILDUREN ALDE

Hauteskunde kanpaina amaitzeko egun bat gelditzen da, larunbatean, hausnarketa eguna izaki. Igandean herritarrek botoa emateko aukera izango dute, eta eskualdeko herrietan hainbaten erabakia argia da. Kasu honetan, Bidegoian eta Errezilgo 40 lagun inguruk, euren botoa Euskal Herria Bilduren aldekoa izango dela iragarri dute. Horrekin batera, herritarrei igandean EH Bilduri babesa emateko eskatu diete. HITZA

PSE-EE alderdiko kideak arrosak banatuko dituzte Tolosan

A. Imaz Villabona

PSE-EE alderdiak arrosak banatuko ditu gaur Tolosako Pablo Gorosabel kalean barrena. Jose Ignazio Asensio, Oscar Renedo, Blanca Roncal eta Miren Gallastegi ariko dira herritarrei botoa eskatzeko, 18:30etik aurrera.

Atzo, Amasa-Villabonako kaleetan barrena aritu ziren herritarren artean arrosak banatzen. PSE-EEko ordezkariak honakoak izan ziren: Maria Luisa Arija, Maider Lainez, Julio Astudillo, Maria Jesus Egido eta Arritxu Maraño.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak →**Lorea Agirre** ▸ EH Bilduren hautagaia

Krisitik ateratzeko burujabetza maila handiagoa lortzea beharrezkoa dela uste du EH Bilduren hautagaia; eredu aldaketa proposatzen du, lehentasunak markatuz eta ondasunen banaketa desberdina eginez.

«Ondo kudeatutako erakundea behar dugu, herritarra helburu duena»

Iñigo Terradillos Alkiza

Beasaindarra da jaiotzez, baina Alkizan bizi da Lorea Agirre azken urteetan. Kazetari, unibertsitateko irakasle, euskalgintzan eta kultur gintzan jardun du orain arte. EH Bilduren hautagaia da Gipuzkoako zerrendan.

Krisitik irteteko zeintzu neurri hartuko dituzue?

Eredu aldaketa proposatzen du EH Bilduk. Erakunde indartsu bat gizarte indartsu eta justu bat da. Ondo kudeatutako erakunde bat behar dugu, dirua alferrik gastatuko ez duena eta lehentasunak ondo markatuak izango dituen, herritarra izango duena helburu. Azken urteetan, esaterako, diru ugari joan da azpiegitura handietan. Guretzat, hezkuntza, gizarte laguntzak, osasuna eta herriari oinarrizko zaizkien eskubideak lehentasuna dira. Hau guztia posible egiteko modua banatzea da: ondasunak banatu, lana banatu, lanorduek banatu, eta beste modu bateko bizi-modua antolatu.

Nola banatuko dituzue ondasunak?

Norberak irabazten duenaren araberako zergak ordaindu behar ditu. Alegia, gehiago duenak, gehiago irabazten duenak, ordaindu dezala gehiago, eta egoera okerragoan dauden horiei falta zaiena ematea da gure helburua.

Eta, lana?

Beharbada lan gutxiago egin behar dugu, baina jende gehiago sartu lan munduan. Jende gehia-

gok lan egiteak sortzen du dirua eta aberastasuna, eta aldiz, gero eta jende gehiago lan sistematik at egoteak, orduan eta gastu handiagoa dakar. Esaterako, sei ordu-ra jaitzi daiteke lanaldia, eta libre uzten diren bi ordu horiekin jendea barneratu lan mundura.

Lanordu gutxiago, eta soldata ere txikiagoa?

Herritarren erosmen ahalmena mantendu daiteke, dirua beste modu batean banatuz. Gainera, agian ikasi beharko dugu, gutxiagorekin, baina hobeto bizitzen, familia kontziliazioa posible egiten, esaterako. Bestalde, gutxieneko soldata 1.075 eurora igotzea da gure asmoa, eta erretiroa 65 urtera pasatzea.

Osasunak nolako behar du izan?

Osasuna lehentasunezko zerbitzua da, eta unibertsala, publikoa eta doanekoa eta kalitatezkoa behar du izan. Hori mantentzeko gai gara, badaudelako nahikoa baldintza ekonomiko. Gure herria herri aurreratua da, aberatsa da. Kontua da bestela egitea. Eta Gipuzkoako Diputazioan, Bilduk, jada erakutsi du hori.

AHTrako aurrekontua murriztu du Espainiako Gobernuak.

Badirudi AHT berez hiltzera doala, bukatu gabe geratu daitekeela. Bidera ezina den proiektua bihurtu da. Dirutza horiek beste nonbaitera bideratu behar dira, benetako beharretara. Badugu tren sarea gainera, baina nahiko utzia. Hori da optimizatu behar dena.

Egungo hizkuntz politikarekin ados al zaudete?

Euskara lehenestea ezinbestekoa da egoera minorizatutik aterako bada. Hizkuntz politika berria proposatzen dugu, benetan eraginkorra izango dena. Euskalerritar guztien eskubidea da euskaldun izatea eta hori bermatu behar da. Horretarako, adibidez, hezkuntzan ume guztientzat euskarazko murgiltze programa bakarren alde egingo dugu. Euskal hedabideak ere funtsezkoak dira hizkuntzaren normalizazioan, eta estrategikoak diren neurrian baliabideak jarri beharko dira, eraginkor izan daitezkeen.

Hondakinen gaiak eztabaida sortu du. Atez atekoaren aurkakoak eta aldekoak daude.

Atez atekoa modu bat da guztiok sortzen dugun zabor hori zerora ekartzeko. Modu eraginkorra, gainera, hemen bezala, Europako hainbat herrialdeetan egunero frogatzen den bezala. Atez atekoaren aurka agertu diren proposamenak ez da zero zaborren helburura gerturatzen. Beraz, ez da balekoa. Errausketa plantak funtzionatuko badu jaten eman behar zaio eta jateko hori zaborra da, eta beraz zaborra sortzera behar hartuko gaitu. Beraz ez da birziklapenerako egokia. Politikariak aldera utzi eta denon artean hitz egiteko kontua da.

Erabakitze eskubideak zein da zuen konpromisoa?

Euskal Herriak bere botere, ahalmen eta gaitasun guztiak, fiska-



IT.

lak, ekonomikoak, politikoak, sozialak, kulturalak, judizialak... bere esku izanda, herri honetan bizi baldintzak hobekuntza izango lirateke. Ongizate gizartea bermatzeko modu bakarra da. Espainia hondea jo duen estatua da, porrot egin duena, ontzia urperatzen ari da eta gu beraiekin, berunezko aingura hori askatzen ez badugu. Beharrezkoa da burujabetza gero eta maila handiago lortzea krisitik ateratzeko. Eta, horrez gainera, gure eskubidea eta gure gogoa da. Eta hor gutxieneko demokratikoa herriari galdetzea da, eta galdeketa bidea irekiko diogu Gasteizko legebiltzarrean.


Euskal Herria okerrago egongo dela Espainiatik at diote batzuk.

Beldurraren mamuak! Eta Espainia nola egongo da Euskal Herri gabe, edo Kataluniarik gabe? Ez ote da hori benetako beldurra? Europatik kanpo geratuko gara? Zergatik utziko du Europak kanpoan aberatsa den herrialde bat? Ez al luke lehenago Espainia utziko? Inoiz baino gertuago ikusten da independentziaren, autodeterminazioaren aukera. EH Bilduk autodeterminazioaren, subiranotasunaren eta independentziaren inguruan indar metaketa lortzeko lan egingo du, bai

erakundeetan eta bai gizarteetan. Indar metaketa abertzale diren alderdi guztien artean eman behar da. Horretarako Gasteizko Legebiltzarra independentistaz, abertzalez eta ezkertiarrez bete behar da. Baina subiranotasunarena Euskal Herri osoan zabaldu beharrezko proiektua da, ez da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarren kontua soilik.

Gobernua norekin osatzeko prest egongo zinatekete?

Herritarrek dute hitza, argi dago, baina EH Bildu irabaztera doa. Gure ustez, parlamentari gehien lortzen duen alderdiari dagokio agintzea, eta guk hori errespetatuko dugu, eta, honestez, espero dugu beste alderdiek ere hori errespetatzea. Alderdi guztiekin hitz egiteko prest gaude. Bizi dugun egoerak hala eskatzen du, eta gainera ona da herri honen onurarako akordio zabalak lortzea. Badakigu hori egiten. Lau alderdi bildu gara EH Bildun, eta badakigu zer den desberdinen arteko akordioak erdieste eta ze balio duen horrek. Ez dugu inongo arazorik alderdi gehiagorekin bildu eta akordioetara iristeko. Baldintzak? oinarrietan, norabidean eta programetan adostasun erakitzailak partekatzea.

**U-21 Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak**

Jarraitu igandeko hauteskundearen emaitzak Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzaren webgunean

Egunkariak hauteskunde eguneko jarraipena egingo du, herriz herriko emaitzak jasoko ditu eta alderdi politikoen erreakzioak bilduko ditu

Adi beraz, webgunera:
tolosaldea.hitza.info

Xalbadoren jenio izaeratik kantatuko du Amurizak, gaur, Lizardi elkartearekin

Baxenafartarraren aleak bilduko ditu Amurizak, 'Xalbador, bat-bateko mirakulua' izeneko bertso afarian

Itzea Urkizu Tolosa

Fernando Aire *Xalbador*, bertsolari zarko mito izan dute askok. Xabier Amurizak, baxenafartarraren jenialtasun horri tiraz, *Xalbador, bat-bateko mirakulua* saioa eskainiko du, gaur, Lizardi elkartearekin.

Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta du bertso afaria, eta iaiz Amurizak berak Lazkao Txikiren paperean eskainitako saioaren bidetik joango da gaur gauekoa ere.

Xalbadoren nahiz Lazkao Txikiren bertsoen antologiak aspaldi eginak ditu Amurizak, eta biak ala biak, aparteko bertsolariak zirela nabarmendu du: «Biak bertsolari onak ezezik, biak bertsolari jenialak dira, bakoitza bere estiloan». Horrela beraz, «Xalbador, hil zenez geroztik, urtez urte, handiagoa» dela dio Amurizak.

21:00etan hasiko da Lizardiko afaria, eta ordu eta erdi inguru iraungo duen saioan, bat-bateko aleak entzun ahal izango dituzte bertaratuek ondoren: «Bat-bateko bertsoen aukeraketa egin dut,



laz Lazkao Txiki hizpide izan zuen Amurizak, Lizardi elkartearekin. HITZA

Lazkao Txikirekin egin nuen moduan».

Bide honetan, mendetan irauteko bertsolari ona izatearekin nahikoa ez dela nabarmendu du Amurizak, eta jenio puntua behar dela: «Ziur naiz, gaur Tolosan bilduko diren entzuleak harriturik geratuko direla, Xalbadoren bertso hauekin: bai hizkuntzazatik, bai edertasunazatik, bai gauzak adierazteko duen moduzatik, bai ematen dion indarragatik...».

Bat-bateko edertasuna

Lazkao Txikiren saioak jarraitu zuen egitura bertsoa izango du gaur iluntzeko bertso afariak ere.

«Gaiak izango dira aldatuko direnak», azaldu du Xabier Amurizak. Izan ere, Xalbadoren estiloa bestelakoa zen: «Umorea ere lantzen zuen, baina beste hainbat gai ukitzen zituen berak. Lazkao Txiki, batez ere umorean nabarmendu zen bezala, Xalbador asko ere irekiagoa da».

Bertsolari bakoitzaren tematikaz haratago, ordea, Amurizak Fernando Aire *Xalbadoren* «hizkuntzaren erabilera eta edertasuna» nabarmendu ditu: «Bat-batean halako gauzak kantatzeko, sekulako ahalmena behar da izan. Harrigarria da gizon baten horrelako gauzak inprobisatu ahal izatea».

Enpresa lehiakorrei 79.500 euroko laguntza eman die Tolosaldea Garatzenek

'+ Innova' txekeen bitartez, eskualdeko 19 enpresei banatu diete diru laguntza, berrikuntza sustatzeko

I. Urkizu

Tolosaldea Garatzenek 79.500 euro banatu ditu eskualdeko 19 enpresen artean, + Innova txekeen egitasmoaren harira. Besteak beste, berrikuntza eta enpresa lehiakortasuna hobetzea dira programa honen helburuak.

Enpresa bakoitzak kontratatu nahi izan duen zerbitzuaren arabera, hiru txeke mota eskaini dituzte, diru laguntzak gauzatzeko.

Horrela, 2.000, 4.000 nahiz 6.000 euroko txekeak banatu dituzte,

hurrenez hurren, txeke batean, bitan edo hirutan banatuta.

Egitasmoan parte hartzeko izen-emate epea pasa den ekainaren 15ean zabaldu zuen Tolosaldea Garatzen agentziak, eta irailaren 7a izan zen azken eguna. Tolosaldea Garatzeneko arduradunek azaldu dutenez, «oso harrrera ona» izan du egitasmoak, parte hartzeko epea laburra izan zen arren.

Guztira 53 txeke banatu dituzte enpresetan. Hauek finantza trebakuntza, kudeatze sistema integralak ezartzen eta nazioarteko merkatuen ikerketan 23 zerbitzu erabilibituzte, laguntza hauei esker.

Honenbestez, 19 enpresek 100.000 euro baino gehiago inbertitu dituzte guztira; 79.500 euro diru laguntzetatik jaso dituzte.

Santa Maria kaperaren emanaldia Santa Klaran

Igandean izango da emanaldia, Santa Klararen 400. urteurreneko ospakizunen barruan

I. Urkizu

Santa Maria parrokiako musika kaperak emanaldi berezia eskainiko du, etzi, Santa Klaran.

Pasa den irailaren 25ean, Santa Klara komentuaurren 400. urteurreneko ospakizunak hasi ziren, eta musika kaperak ospakizunetan parte hartzera gonbidatutako

taldeetako bat da. Horrela, beraz, 18:30ean hasita, emanaldi berezia izango dela azaldu dute musika kaperako kideek, eurek ez baitute kontzertu formatuan lan egiteko ohiturarik.

Batetik, Loreto Fernandez organistak, Bach, Couperin eta Buxtehude-ren obrak eskainiko ditu organoan, eta era berean, kaperak osoak ere hainbat pieza eskainiko ditu batera.

Santa Klara elizako akustika egokia medio, kaperako kideek obrak bereziki gozatzeko aukera izango dela nabarmendu nahi izan dute.

• tolosa@hitza.info

→ Laburrak

Bularreko minbiziaren aurkako eguna, gaur

GIZARTEA > Bularreko minbiziaren aurkako nazioarteko eguna dela eta Minbiziaren Aurkako Elkarteak gaixotasun honen aurka lanean jarraitu nahi du. Horrela, sensibilizazio jarduerak antolatuta dituzte Tolosan, udalaren laguntzaz. Udaltxekek balkoian lazo arrosa handi bat jarriko dute. Halaber, elkarteak boluntarioek lazo arrosak eta informazioa banatuko dituzte Tolosan, Ibarren, Villabonan eta Zizurkilen.

Identibuz tailerra izango da bihar

GIZARTEA > Identibuz Tolosaldeko kultur aniztasuna islatzen saiatuko da, bihar, 10:00etatik 19:30era. BOX.A elkartearen lokalean, parte-hartzaileen telefono mugikorren bidez bideoak grabatzen ikasiko dute.

Bertso afariko txartelak erosteko azken eguna

KULTURA > Udaberrik antolatutako bertso afarirako txartelak erosteko azken eguna izango da gaur, Denak, Ikatza, Orbela eta Raku tabernetan, 20 euroren truke. Bihar 21:00etan izango da, Alaia Martin, Iker Zubeldia eta Amets Arzallusekin.

Mauka berria

Urriaren 31 baino lehen izena ematen baduzu, parte hartuko duzu Kanaria uharteetara astebete doan joateko zozketan.

www.mauka.eu

Enski bidaiak agentziaren eskutik

EROSKI bidaiak
merkezi duna

Laster...
planik onenak
egunero,
bertatik bertara!

Tolosako Ugane eta Ibarako Azkue auzoetan, festa eguna dute biharkoa

Lehenengo aldiz ospatuko dute Azkue Eguna; Uganen, besteak beste, txirrindulari iguera izango da

Imanol Garcia Landa

Jai giroa izango da bihar Tolosako Ugane eta Ibarako Azkue auzoetan. Hain justu, lehenengo aldia da Azkue auzoan festa antolatu dutena, eta euren asmoa auzotarren artean harremanak egin eta estutzea da. Auzolanean antolatu dute Azkue Eguna eta bihar bertan ere ekitaldiak modu berean egingo dituzte. Auzotarrei balkoiak berde kolorez apaintzeko eskatu diete. Bestalde, barriko-

tean parte hartu behar dutenei berrerabilgarria den baxera eramateko eskaria egin dute.

Ez da musikarik faltako Azkue Egunean. Hala, herriko musikariek osatutako DBH-36 andegualers taldeak kontzertua emango du. Ibarako Uzturpe ikastolako festan eman zuten lehenengo aldi kontzertua eta gero San Bartolome festetan ere egin zuten emanaldia.

Auzo bazkaria eta afaria

Tolosako Ugane auzoko festetan hainbat ekitaldi izango dituzte egunean zehar, tartean auzo bazkaria eta afaria. Txirrindulari iguera egingo dute eta aurtengoan 14. a izango da. Poteoa ere izango da bertolarien, eta bazkaloste- an ume jolasak, toka eta mus tx-

pelketa egingo dituzte. Afariaren ondoren, Ugane bertako musikariek osatutako Santuipeko taldearen emanaldia izango da.



Azkue auzoko haurrak apaingarriak egiten aritu dira. R. CALVO

↓ Egitarauak (hilak 20, larunbata)

AZKUE EGUNA

- **08:30.** Auzolanak festa antolatuko.
- **11:00.** Antidiana. Haurrek eta helduek egindako instrumentuekin.
- **12:00.** Txupinazoa. Entzierroa, Bartolo eta Bartola, buruhandiak... eta haurrentzako jokoak.
- **14:00.** Barrikotea. Sagardoa, txotxa, ura, kafea eta izozkia egingo dira. Jatekoa parte har-

tzaile bakoitzak etxetik eramane beharko du.

- **16:00.** Azkue kantari. Auzoko astoa omenduko da. Ondoren sokatira eta toka txapelketa.
- **18:00.** Dantzaldia: DBH-36 andegualers.
- **20:00.** Jasolana auzolan ederrean.

UGANEKO JAIAK

- **12:00.** Uganeko 14. Txirrin-

lari Igiera. Jarraian, Hernaniko bertolari gazteek animaturiko poteoa, pintxo eta guzti.

- **14:00.14:00.** Auzo bazkaria, eta arratsaldean, ume jolasak, toka, mus txapelketa eta segidan saskiaren zozketa.
- **21:00.** Auzoko afaria, eta jarraian, Santuipeko taldearen kontzertua.

Egunean zehar, trikitia, garagardoa eta mojitoak. Egun osoan saskirako txartelak salgai.

Larramendiko jaien prestaketa lanak, azken txanpan

Hilaren 26tik 28ra izango dira, eta 25ean, jai eguna izanik, ekitaldiak ere antolatu dituzte Tolosako auzoan

I. Garcia Landa Tolosa

Tolosako Larramendi auzoko festen aurkezpena egin du jai batzordeak, eta lehenbizi udalaren eta auzoko saltokien laguntza eskertu du. Festak urriaren 26etik 28ra izango dira, nahiz eta 25ean, jai eguna izanik, jarduera batzuk egon. Hainbat ekitaldietarako izena eman behar da, baina, esaterako, hilaren 27ko auzo bazkari-rako txartelak agortu egin dira. Jai batzordetik azaldu dutenez, jende gehiagok parte hartzeko aukera aztertzen ari dira eta jakinaraziko dute kartelen bitartez izena emateko aukera izango den.

Ekitaldietako bat haur eta helduen danborrada izango da, hilaren 27an, eta dagoeneko 150 pertsona inguruk eman dute izena. Oraindik izena eman daiteke, eta azken eguna horretarako gaur da, hain justu lehen entseguaren eguna. Bi entsegu egingo dira, eta gutxienez horietako batean parte hartu behar dela jakinarazi dute jai batzordetik. Arkaute etxean elkartzeko dira horretarako, gaur eta hilaren 25ean, eta 19:30ean hasiko dira. Hala ere, danborradako arduradunek parte hartzaileei ordu erdi lehenago azaltzeko eskatu diete, danborren banaketa eta arintzeko. Danborradan parte hartu behar dutenek festetarako aterako den zapia eskuratu beharko dute.

Bestalde, RAID lasterketa antolatu da hilaren 27an eta horretarako izena ematea eskatzen da 23a baino lehen, nahiz eta egunean bertan ere egin ahalko den. Sei



Larramendi jai batzordeko zenbait kide, aurkezpenean. IGL

kilometrotako lasterketa eta ginkana uztartuko dituen proba izango da. Jai batzordetik azaldu dutenez, «ez da lehiakorra izango. Asmoa ondo pasatzea da». Proba- ren amaieran hamaiketako banatuko dute.

Festen azken egunean, hilaren 28an, patata tortilla lehiaketa

egingo da goizean zehar. Parte hartu nahi duenak osagaiak etxetik eman behar ditu eta gero jai eremuan egingo da prestaketa; etxetik egin ekartzea ere posible izango da. Egundorretako bazkaria zahagi-ardoa izango da, hau da, norberak eman beharko du janaria, eta edaria jai batzordeak ja-

rriko du euro bat edo bi euroren truke. Zahagi-ardoaren ondoren, munduko postreen dastatzea egingo da. Horretarako, nahi duenak bere postrea eman dezake etxetik.

Jai batzordeak auzotarren parte hartzea eskatu du festaren antolakuntzarako. Hala, batzordean osatu diren hainbat lantalde- tan izena emateko deia egin du. Horretarako Amets eta Plan B tabernetan, eta Txosne eta Idarreta kafetegi-okidegietan dauden zere- rendak erabili daitezke. Bestalde, lehen aipatutako lau lekuetan gutunontzi batzuk egokitu dira, bertan nahi duenak bere laguntza emateko. Horrez gain, festetan zehar kamisetak, metxeroak, pegatinak eta zapiak erosi ahalko dira. Azkenik, kartel batzuk jarri dira bi tabernetan eta bi okide- gietan, *porra* moduan parte hartzeko. Sariak auzoko saltokiek banatuko dituzte.

Soluzioak zure esku

BOZKATU ehbildu

Berrobiko frontenis txapelketan izena emateko epea zabalik dago

Azaroaren 6ra arte egin ahalko da; azaroaren 17an hasiko da, eta finalak abenduaren 7an jokatuko dira

I. Terradillos Berrobi

Berrobiko Begi Gorri gaztetxeak antolatuta, aurten ere Ion Ander Izagirre Frontenis Txapelketa hartuko du herriko frontoiak. 21. urtea du, eta berrikuntza bezala, talde mixtoek ere parte hartu ahalko dute.

Azaroaren 17an hasiko da txapelketa. Azaroaren 18an, 24an, 25ean, abenduaren 1ean eta 2an jokatuko dituzte partidak, eta abenduaren 7an izango dira finalak. Mutilek banaka eta binaka parte hartu ahalko dute, eta neskek binaka. Eta, horretaz gain, mutil batek eta neska batek ere osatu ahalko dute taldea aurten, lehen aldiz.

Pasa den urtean 45 bikote aritu ziren lehiatzen, eta 32 lagun banaka. Urtero kopuru antzekoa izan ohi da, eta aurten ere mantentzea espero dute. Iaz, banaka Unai Mendia izan zen irabazlea, eta binaka Iban Zabaleta eta Iban Aranburu izan ziren txapelak.

Frontenis txapelketan parte hartu nahi duenak dagoeneko izena emateko aukera izango du.



Pasa den urteko frontenis txapelketako irabazleak. HITZA

↓ Datuak

TXAPELKETA

- **Partidak.** Azaroak 17, 18, 24, 25, abenduak 1 eta 2.
- **Finala.** Abenduaren 7an.
- **Parte hartzaileak.** Mutilik banaka eta binaka, neskek binaka eta bikote mixtoak.

Azaroaren 6ra bitarte egin ahalko da, eta parte hartzaile bakoitzak 5 euro ordaindu beharko ditu.

Izagirreraren omenez

Ion Ander Izagirre herritar zenaren omenez egiten dute txapelketa 1996. urteaz geroztik. Hura hasi

IZEN EMATEA

- **Noiz.** Azaroaren 6ra bitarte.
- **Non.** Tolosako Aralar Kirolak dendan, Berrobiko Iriarte jate-txean eta Berrobiko Iturriza dendan.
- **Prezioa.** Bakoitzak 5 euro.

zen txapelketako antolatze lanean, eta parte hartu zuen guztietan lortu zuen txapela janztea. Auto istripuz hil zen, eta ordutik, bere izena du frontenis txapelketak. Modu horretan omendu nahi dute bere lagunek.

oibarraldea@hitza.info

→ Laburrak

Amezketako Gaztelekuan ate irekien eguna, gaur

AMEZKETA › Aurreko larunbatean zabaldu zituen ateak Amezketako Gaztelekuak. Gaur ate irekien eguna egingo dute, 17:00etatik 20:00etara. Udalak gurasoei eta nahi duten herritarrei gonbita egin die Gaztelekura joan eta ezagutzeko. Gaztelekua frontoiaren barruko lokalean dago.

Galtzakomik Lehiaketan parte hartzeko aukera

IBARRA › Galtzaundi euskara taldeak Ibarako Udalarekin elkarlanean antolatuta, abian da V. Galtzakomik Lehiaketa. Parte hartu nahi dutenek azaroaren 23ra arte izango dute aukera euren lanak Galtzaundiko egoitzan aurkezteko. Sari banaketa abenduaren 14an egingo dute Ibarako kultur etxean. Informazio gehiagorako euskara taldearekin (943 65 50 04) jar daiteke harremanetan.

Larraitzen goiz pasa berezia egiteko aukera izango da bihar

Ibilaldi gidatua eta jolasetan parte hartzeko aukera izango dute gaztetxoek euren gurasoekin

I. Terradillos Abaltzisketa

Gipuzkoako parketxeek antolatuta, gurasoek euren seme-alabekin goiz pasa berezia egiteko jolas abentura egingo dute bihar, Larraitzen. Ibilaldi bat egingo dute, jolasean ariko dira, eta nahi duenak Abentura Parkean jolastu ahalko du prezio murriztuan.

Larraitzetik Abaltzisketara doan ibilbide irisgarrian ibilaldi gidatu motza egingo dute, eta amaieran jolas batean parte hartzeko aukera izango da. Taldeka, bidean dauden panelak erabiliz, froga eta asmakizun ezberdinak osatu beharko dituzte.



Panelekin egingo dute jolas. HITZA

Parte hartu nahi duenak Larraitzeko informazio puntuan egon beharko du, 10:30ean. Aurrez izena eman daiteke, edo bestela, bihar, 6 urtetik gorako haurrei zuzendua dago, eta euskaraz egingo da. Ibilaldia eta jolasean doan parte hartu ahalko da, eta Abentura Parkean sartu nahi duenak ohikoa baino prezio baxuagoa ordainduko du.

Kultur ekitaldiek hartuko dute Oresa datozen bi asteetan

Kultur hamabostaldia izango da azaroaren 3ra arte; Abarlotz Olanozaldibiar musikaria ariko da bihar

I. Terradillos Oresa

Bihartik aurrera, eta azaroaren 3ra arte hainbat kultur ekitaldi gozatzeko aukera izango dute Oresan. Herritarrek elkartzeko helburuz, askotariko ekitaldiak izango dira kultur hamabostaldian: kantaldiak, hitzaldiak, ibilaldiak, ikus-entzunezkoak, afariak...

↓ Egitaraua

URRIAK 20, LARUNBATA

■ **22:30.** Kantaldia Abarlotzen eskutik

URRIAK 23, ASTEARTEA

■ **21:30.** Nafarroako konkista 1.512-2.012 hitzaldia Sergio Iribarrenen eskutik.

URRIAK 28, IGANDEA

- **Goizean.** Uiltzi - Oresa ibilaldia.
- **Ondoren.** Herri bazkaria Garaiz Esnaola eta Garazi Egiurenen abestiak alaiturik.

URRIAK 31, ASTEAZKENA

■ **21:30.** Gazta zati bat dokumentalaren emanaldia Jon Maiaren azalpenekin.

Ekitaldien artean, bada tradizio handia duen bat, Oresa eta Uitziren artean egin ohi duten ibilaldia. Aurtengoa 25.a da, eta ohi bezala, Uitzitik Oresarako bidea egingo dute, eta Oresan bertan bazkarian bilduko dira denak. Urriaren 28an egingo dute ibilbidea, eta hamabost egun barru, gauza bera egingo dute, baina alderantziz, hau da, Oresatik Uitzirako bidea egingo dute.

Abarlotz Olanozaldibiarren kantaldiak irekiko du, bihar, egitaraua. Hurrengo ekitaldia asteartean izango da. Nafarroako konkistaren inguruko hitzaldia emango du Sergio Iribarrenek, udaletxeko ganbaran.

AZAROAK 1, OSTEGUNA

- **11:00.** Narbaitzu eguna.
- **20:00.** Afari merienda.

AZAROAK 2, OSTIRALA

■ **22:00.** Kabaret antzerkia Urratz taldearen eskutik.

AZAROAK 3, OSTEGUNA

- **21:00.** Herri afaria.
- **Bukatzean.** Erromeria Gari eta Iñakik giroturik.
- **Ondoren.** DJ Bull.

ARGAZKI ERAKUSKETA

■ **Ganbaran.** Kultur hamabostaldiak irauten duen bitartean *Mundu batetik* argazki erakusketa egongo da ikusgai udaletxeko ganbaran.



Urtero bezala, Uitzitik Oresarako ibilaldia egingo dute. HITZA

Tolosakoaren ostean, Leitzako Mikologialdiaren txanda iritsi da

Astelehenetik igandera bitarte, perretxikoen inguruan ikasteko hamaika ekitaldi izango da

Iñigo Terradillos Leitza

Perretxikoenganako zaletasuna zabaldu eta gaiaren inguruan ikasteko helburuz, Mikologialdia hasiko da datorren astelehenean, Leitzan. Alke elkarrekin antolatzen duen ekimenak bosgarren urtea du aurtun.

Antzina ere mikologia asteak antolatuta ohi ziren herrian, eta oihartzun handia izan ohi zuten. Lehen, baina, lehiaketa izaera izan ohi zuten, eta gaur egun izaera didaktikoa du. Hala, perretxi-

ko motak ezagutzeko aukera edota gure mendietan zein perretxiko mota aurki daitezkeen ikasi ahal da.

Helduei zein gaztetxoei zuzenduriko ekitaldiak izango dira. Batetik, herriko gaztetxoei perretxikoei buruzko marrazkiak egingo dituzte aste osoan zehar, eta datorren larunbatean, eurekin mendira irtengo dira, eta perretxikoak bilatzen eta zein diren jangarriak irakatsiko diete. Bestetik, helduak ere animatzen dituzte perretxikotara joatera. Bi egunez irtengo dira perretxiko bila, eta han bildutakoak karrapean jarriko dituzte.

Mikologialdiko azken egunean hamaika ekintza egingo dituzte. Tailerrak eta erakusketekin batera, XIXekin eginiko pintxoak dastatu ahalgo dira.



Karrapean jarriko dituzte sailkatuta datorren astean bilduko dituzten perretxikoak. SARA GOMEZ

↓ Egitaraua

URRIAK 22-28

■ **Marrazkiak.** Herriko gaztetxoei marrazkiak eta era guztieta-ko irudiak eginen dituzte eskolan, aste osoan zehar. Igandeko erakusketan jarriko dituzte ikusgai.

URRIAK 26 ETA 27

■ **Perretxiko bilketa.** Herrita-

rrak perretxikoak biltzera joango dira mendira, horiek jasoko dituzte, eta udaletxeko karrapean jarriko dituzte.

URRIAK 27

■ **Haurrak perretxikoak biltzen.** 09:30ean abiatuko dira menditeraldia egitera, haurrekin. Onddoak eta zizak biltzen irakatsiko diete.

URRIAK 28

■ **Tailerrak.** Haurrentzako, karrapean, 11:30etik aurrera.
 ■ **Erakusketak mikologikoa.** Goizez eta arratsaldean.
 ■ **Proiektzio didaktikoa.** Zizen inguruan.
 ■ **Haurren marrazkiak.** Erakusketak eta zozketa.
 ■ **Pintxoak.** Zizekin prestatutako pintxo dastaketa.

Otaño Urrezko Aizkorako txapela janzteko lehiari

Nazabal eta Atutxaren aurka ariko da biharko finalean; «nahiko lasai» dagoela adierazi du ibartarrak

I. Terradillos Ibarra

Urrezko Aizkorako Txapeladunen ligako finala izango da bihar, Bilboko La Esperanza pilotalekuan, 12:30ean hasita. Bertan txapelaren lehiari Unai Otaño ibartarra ariko da. Etxarri Aranazko Floren Nazabal eta Aitzol Atutxa dimoztarra garaitu beharko ditu horretarako.

Ibartarra «nahiko gustura» dago bere buruarekin. Datorren asteburuan du Euskal Herriko Aizkora Txapelketa, eta horretarako ari da buru belarri prestatzen, beraz, gogor entrenatu dela azaldu du: «Zutikako enborrekin ez dut gehiegi entrenatu, eta hor ibiliko naiz agian beste aizkolariak baino apalago».

Biharko aurkariei dagokienez, Floren Nazabal besteen gainetik dagoela adierazi du; «Nazabalek onatzen badu, ziur gu baino maila bat gorago egongo dela; gainera, bai zutikakoan bai eta etzanda ere, oso ondo moldatzen da nafarra». Aitzol Atutxari buruz, zutikakoan ere ondo molda-

tzen dela azaldu du Ibarra aizkolariak.

Zail ikusten du bihar txapela irabaztea, baina ahal duena emango du Unai Otañok. Ibartarra egungo binakako txapelduna da.

Jon Irazuri desfazioa

Bestalde, Xabier Zaldua Zumarragako aizkolariak apusturako deia egin dio Jon Irazuri zizurkildarri. Zumarragatarra hirugarren postuan geratu zen Euskal Herriko bigarren mailako finalean, eta txapela lortu zuen Irazuri aurka jokatzeko eta hura garaitzeko prest dagoela adierazi du.

Zalduak 20 kana erdikora jokatuko lukeela apustua azaldu du. Berak eramango luke enborra, eta 3.000 euro jarriko lituzkete jokoa. Abenduan edo datorren urteko urtarrilean jokatu nahi luke Zumarragakoak, Asteasuko pilotalekuan.

Bada, Jon Irazuri erantzuna eman dio Zalduaren desfazioari. Apustuari baietz esateko prest dagoela adierazi du, baina eskuetako batean lesioa duenez, datorren urterako utzi beharko litzatekeela azaldu du.

Gaur iluntzean jarri dute hitzordua Asteasuko Ituriondo tabernan apustuaren nondik norakoak zehazteko.



Unai Otaño ibartar aizkolaria. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



21°
12°

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	18°
HOTZENA	16°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Aduna.** Lupe Lekuona ipuin kontalaria izango da gaur, 18:00etan, liburutegian.
- **Tolosa.** Kasino elkartearen Mikologia Astearen barruan gaur, 09:00etan, Tolosaldeko ikasleek perretxikoak bilduko dituzte, eta Aranzadiko kideek sailkatuko dituzte. Bihar, 12:00etan, azoka, Trianguloan.
- **Larraitz.** Bihar 10:30ean Larraitzetik abiatuta Larraitz-Abaltzisketa ibilaldia.

JAIK

- **Tolosa.** San Esteban auzoko jaien barruan, gaur, 21:00etan, afaria, Muñoa eta Estanga bertsolariet girotuta, eta ondoren, DJ King. Bihar, 16:00etan, mus txapelketa, 16:30ean, ginkana eta haur jolasak, 16:30ean, mural margotzea BOX. Aren laguntza, 18:00etan buruhandiak, 19:00etan txokolate jatea, 00:00etan RAS eta Peachy Joke, eta ondoren, DJ Puntzaka. Igandean, 09:00etan diana, 10:00etan trikitia auzoko base-rietan, 11:00etan meza, 12:00etan toka txapelketa, 14:00etan babarrun jatea, eta ondoren, dantzaldia.

- **Ibarra.** Azkue auzoko eguna bihar (ikus egitaraua 5. orrian).
- **Ugane.** Auzoko festak bihar (ikus egitaraua 5. orrian).

BERTSOLARITZA

- **Tolosa.** Iurre elkarteak bertso afaria antolatu du biharko, txar-telentzako 680 27 35 83 (Alex Perurena) telefonora deitu.
- **Tolosa.** Udaberri dantza taldeak 55. urteurrena ospatzeko antolatutako bertso afaria bihar, Amets Arzallus, Alaia Martin eta Iker Zubeldiarekin; Zerkausian izango da. Era berean, 18:00etan, *Egun batez* DVDa aurkeztuko dute udal-txeko pleno aretoan, eta 19:00etan, trikipotea egingo dute.
- **Tolosa.** *Xalbador. Bat-bateko mirakulua* ikuskizuna gaur, 21:00etan, Lizardi elkartearen Xabier Amuriza bertsolariak Xalbadorren irudi eta bat-bateko bertsoak plazaratuko ditu.

MUSIKA

- **Alegia.** Txintxarri Abesbatza kultur elkartearen eguna, bihar; Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzen emanaldia 19:45ean izango da elizan, eta

- ondoren, afaria.
- **Orexa.** Kultur hamabostaldia-ren barruan, gaur, 22:30ean, kantaldia Abarlotzen eskutik.
- **Tolosa.** Bonberenean gaur, Sharon Stoner, Interlude eta Kaimanleon 22:30ean, eta bihar ordu berean, Skakeitan.
- **Tolosa.** Musika banda bihar, 19:00etan, Berdura plazan.

ARTE ESZENIKOAK

- **Tolosa.** Haatik taldearen *Errim-ak oinetan* emanaldia, gaur, 20:30ean, Leidorren.
- **Tolosa.** Zikloiaren barruan, gaur, Jhon Ardila narratzaile komikoaren *De allá*, 23:00etan, Kikara tabernan.

ZINEMA

- **Tolosa.** Leidorren bihar, 19:30ean, *Zuloak* eta 22:30ean *Una vida mejor*. Igandean, 17:00etan *Don gato*, eta 19:30ean eta 22:00etan *Una vida mejor*. Astelehenean, 20:30ean, *Zuloak*.

KIROLA

- **Hernialde.** Alpino elkartearen, XII. Rolleski Igoera bihar, 16:00etan, Tolosako Belatetik.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Morant, R. Zabalaretza, 1. Telefonoa: 943 67 38 49.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Olarreaga, M. Martin Jose

Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

ETZI

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. Telefonoa: 943 65 10 40.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

ETZIDAMU

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.
- **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar, kalea, 25. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien etairtziaren erantzukizunik.



Urrezko ezteiak
Nikaxio eta Joxepa (Eldua).
Bihar zuen egun handia, eta etzi ospatuko dugu familia guztiak. Muxu handi bat eta zorionak denen partetik.



Urte askoan!
Garazi Zabala Martinez (Tolosa).
Igandean 7 urte beteko ditu. Zorionak eta muxuak anaia Galder, lehengusu Oneka eta familia guztiaren partetik.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●● **agurrak**

Elketa Jatetxea



- ◆ **Eguneko menua** (astelohenetik ostiralera)
- ◆ **Plater konbinatuak** (ostiral, larunbat eta igande gauetan)
- ◆ **Menu berezia** (larunbat eta igande eguerditan)

San Miguel bailara, 2 • Hernialde •
Erreserba egiteko: 943 65 21 16
www.elketa.com